

# berria.info

---

## Inprimatzeko bertsioa

---



### EKONOMIA

---

## Haurreskoletako langileen protesta murrizketen aurka

Azken urte honetan EAeko Haurreskolak Partzuergoko langileen "lan baldintzak okertzen" joan direla-eta, beharginek beste protesta ekintza bat egingo dute bihar, Bilbon: 9:30etik 10.00etara elkarretaratzea, epaitegiaren aurrean. Murrizketak eta soldata jaitsiera salatuko dute.

LAB, EILAS eta ELAk Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Haurreskolak Partzuergoari negoziazio kolektiboaren bitartez auzian konponbide bat lortzeko eskaera egin diote.

Auzia epaitegietan dago, eta bihar Bilbokoan aztergai izango dute.

GARA > Idatzia > Ekonomia

Elkarretaratzea Bilbon

## **Haurreskolak Partzuergoan murrizketak salatu dituzte sindikatuek**

LAB, STEE-EILAS eta ELA sindikatuek elkarretaratzea egin zuten atzo Bilboko epaitegiaren aurrean, haurreskoletan eskaintzen den hezkuntza zerbitzuan eta langileen soldatetan ezarritako murrizketak salatzeke. Sindikatu hauek adierazi zuten, azken urte honetan Haurreskolak Partzuergoko langileen lan baldintzak okertzen joan dira eta, ondorioz, baita eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea ere. Gai hau epaitegietara eraman dute eta, hain zuzen, Bilboko epaitegietan aztertu zuten atzo. Horregatik, bertara eraman zuten mobilizazioa. Halaber, Hezkuntza Sailari zein Haurreskolak Partzuergoari negoziazio kolektiboaren bitartez auzi honen inguruan konponbide bat lortzeko eskakizuna egin zieten hiru sindikatuek.